

1913 GARREN BAGILA'KO
BAZTAN'GO UYOLDE NAGUZIJA'RI

(Azkeneko indar-neurtzeetan Aldeera irabazia)

Ikusi nairik Baztan'go aran,
Ibar, zelai eta ibai,
Etxe, baratza, iturri, baso,
Mendi ta geyogo be bai,
Bizkai aldetik juanda nintzan
Oroi adi, alai-alai
Euzkelerriko gauza gustijai
Azko dautzetalako nai.

Udako egun zoragari bat
Azi zaneke argitzen,
Ogetik jagi ta beingo baten
Mendiganeratu nintzen.
!Ai, azan goxa! Txori gustijak
Abes-abeteska zebiltzen;
Alaitasuna baño besterik
Etzan inñundik agertzen.

Txindorrak, txirizt; kukuak, ku-ku
Txorrotxioka ainbat soso;
Txiro-liro ta urrugurruka
Birigarro eta uso;
Ta beste txori alai azkoren
Ainbeste abesti gozo
Estitzuakin ija ninduben
Donokira'gñño jaso.

Baso ta mendi orlegi ziran;
Zelayak, loraz besterik;
Solo-baratzak ezeuken barriz
Edertasuna besterik.
Oldozten nintzan ekatxen batek
Eiten ezpadau kalterik,
Baztan'en etzan ixango zarri
Aurrengo lako urterik.

Gauza gustijai adi nintzala,
Poz eta atsegiñ artian.
Orra nun laño bildurgarri bat
Sortzen dan beingo batian;
Aize deungeak zabaldube bai
Baztan inguru gustian,
Ta nire biotz pozkiro zana
Tamalez jarri euztitan.

Estalduen da laño artian
Zorioneko eguzki,
Au ikusirik len alai-alai
Aurkitzen ziran egazti
Abeslarajak ixiltzen dabez
Pozeko euren abesti,
Eta ni dar-dar lau ikaratan
Biotz, ezku ta oñazpi.

Azten dira aize, oñeztu, oztots:
Laño baltz, euri ta arri;
Esan zeikean gaudi gustian
Itxasoa zala jarri,
Ta Luziperr'ek tximiztindarrez
Ler eragiñik berari,
Antza-menditik berantz ebal
Baztan galtzeko ekarri.

Basetxe baten larri ta estu
Nintzan ekatxai begira,
Neutzat nesala itxasoko ur
Gustijak Antza-mendira,
¿Gorroto aundiz Luzbel gaiztoaz
Bat einda igon etedira
Baztan gustija eruuteko
Uyoltzan itxas erdira?

Begirutzen dot aran aldera
 Baña ¿zer dakustala nik?
 ¡Len etxe, solo ta baratz eder
 Alaigarriak ixanik
 Orain ba-dagoz uran azpijan
 Itxas ondartzia egiñik
 Baztan gustija geratzen dala
 Ikaraz egon eziñik!!

Uyol ankerra sartzen da baita
 Lau aldetatik elizan,
 Eziñ asaldu leike bertako
 Gauzak ze tayuz ebizan.
 Goiko Jauna'ren txadonak orra
 Ontzi galduaren gizan.
 Noe'n aldiko uyol nauzitik
 Olakorik ezta izan.

Burdi ta abere uyoltzan duaz
 Etxe ta zubi urratu
 Solo-baratzak uran azpijan
 Salostetxiak ondatu
 Lagunak barriz batzuk ito ta
 Bestiak larri geratu
 Ta ¿zer geyago? ¡ai! goiko Jaunak
 Bakarrik legi zenbatu.

Zar eta gaste negar-uluka
 Esaten «gure galdua.
 Baztan'go aran alde gusti au
 Zeatz ondatzera dua.
 ¿Eteda baña uyol deunge au
 Noe'en aldijan lakua?
 Ezeizu jarren! orrelakorik
 Laketu ene Jainkua»

Uyolde batek ondatu eban
 Ludi gustiko gixadi,
 Bakar-bakarrik geratzen zala
 Noe ta beren etxadi;
 Ego aldeko uyol ankerrak
 Gaizotu eban Euzkadi.
 Uyolde batek ondamendija
 Baita damotzo Baztan'i.

¿Zan eteda Ludi gustia
 Ondatu eban antzera
 Gure Jainkuak azarraturik
 Baztandar'aren artera
 Bidaldutia uyolde ori
 Erri alde au galtzera
 Aitzu daulako beren goiko Jaun
 Aberrija ta euzkera?

Goiko Jaun ona erruki zadi
 Aketzi euren obenak,
 Dirialako bide onera
 Bigurtu gura dabenak;
 Aurrerantzian baita be izan
 Napar-euzkeldun onenak.
 Atsegindurik ipinizuz ba
 Orain tamalez direnak.

Gaurtik maiteko daba euzkeldun
 Izkuntz, oitura ta lagi,
 Oker egiñak zuzendutia
 Dabelako erabagi,
 Aberri aldez maite-maiterik
 Oro eingo dira jagi
 Asabak legez goralduteko
 Jaungoikua ta Euzkadi.

PEDRO ENBEITIA RENTERIA